

BIDEZKO+ MERKATA RITZA

UNITATE DIDAKTIKOA

BIDEZKO MERKATARITZAN IKUSPEGI FEMINISTA
BARNERATZEKO ORIENTABIDEAK.

Setem

2019ko edizioa.

Edizioa: **SETEM Hego Haizea.**

Diseinua eta maketazioa: **Labox Marketing y Comunicación.**

Lan hau **Creative Commons** lizentziapean dago:



CC BY-NC-SA (Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin)

Lizentzia honek beste batzuei bide ematen die haren obran oinarri hartuz nahasi, egokitu eta eraikitzeko, helburu ez-komertzialetarako, betiere egiletza aitortuta eta sortzen diren lan berriak baldintza bereko lizentzia baten pean jarrita.

Babeslea:



SARRERA

Unitate honen helburua da debatea eta gogoeta bultzatzea bidezko merkataritzaren arloan ikuspegi feminista gehitzearen inguruan. Bidezko merkataritzako hainbat erakundek 2017an aurrera eramane zuten prozesu baten emaitza da (SETEM Hego Haizea, Equipare, Medicus Mundi Araba, Kidenda, Maquita, Grupo Social FEPP eta K'inal Antsetik), eta hura da, hain zuzen, dinamika hau garatzeko argudioen eta lanaren oinarria. Horregatik, unitate honi erantsita aipatutako prozesuan taxutu zen agiria dator, **“Bidezko merkataritza: genero-ikuspegia barneratzeko orientabideak”**.



Hartzaileak

Bidezko merkataritzako antolakunde eta erakundeak, edo bidezko merkataritzaren mugimenduarekin zerikusia duen edozein entitate edo pertsona.



Iraupena

2 ordu.


BEHARREZKO MATERIALAK




“Bidezko merkataritza: genero-ikuspegia barneratzeko orientabideak” agiria




Papelografoak



Agiriaren lan-fitxak: aurrealdea eta atzealdea



Errotuladoreak



Postitak




Dixit txartelak edo irudiak



Kanta

GARAPENA





1. **Girotze eta arretako dinamika**

Dinamizatzaileak parte-hartzaileei eskatuko die apur batean begiak ixteko eta arnasa hartzeko. Arreta jarri arnasan, gorputzean, tentsioetan, une honetan sentitzen dudan horretan. Epaitu gabe, une honetan sentitzen dudana eta lantegi honetara dakardana onartzen dut.

Begiak ireki, eta dinamizatzaileak galdetuko du: Nola nago hemen eta orain? Zerekin nator lantegi honetara?

Erantzuteko, proposatuko da bakoitzak txarteletako irudi bat aukera dezala, eta guztiak biribil batean jarriko dira. Beste kideen irudiei begiratzera gonbidatuko da, eta bakoitzak bere azalpena eman dezala; ez bada ematen, ez da ezer gertatzen.

Dinamizatzaileak azalduko du haxe dela dakarguna, eta ongi dagoela, eta horrekin guztia-ekin murgilduko garela lantegian, bere horretan. Txartelak gorde egingo dira, lantegiaren bukaeraraino.





2.


Testuingurua, prozesua eta emaitzak


Sarrerako dinamika:

dinamizatzailleak parte-hartzaileei gelan zehar ibiltzeko proposatuko die (musikarekin), bidezko merkataritzan pentsatzen duten bitartean. Ibilian ari direla, esango diegu bidezko merkataritzan pentsatzean gogora datozkien hitzak esan ditzatela, eta postit batean (2-3) idatz ditzatela, bakoitzean hitz bat. Gero, parte-hartzaileei gonbidapena egingo zaie hitzok osoko taldean partekatzeko, eta dinamizatzailleak papelografo batean jarriko ditu.

Idea da bidezko merkataritzarekin zer lotzen dugun aztertzea, ea emakumeak edo generoaren arloko gaiak agertzen diren parte-hartzaileek aipatzen dituzten hitzetan. Daitekeena ezer ez edo zerbait agertzea. Nolanahi ere, balio du azaltzen hasteko zergatik eta zertarako identifikatu dugun begirada feminista edo generoko kuestionamenduak bidezko merkataritzaren arloan gehitzeko beharra, hutsune bat atzematen genuela abiapuntutzat harturik: bidezko merkataritzako mugimenduan egiten ditugun azterketetan ez ezik, gauzak egiteko, lan egiteko eran ere, logika ez-patriarkala dugun antolakundeak garen aldetik, gauzak egiteko eran praktika atseginagoak gauzatzeko logika bat, bizitza erdigunean jarritz.

Dinamikaren ondoren, dinamizatzailleak honako hauek azalduko ditu: testuingurua, aurkitu ditugun beharrak, prozesuaren garapena, eta sortu ditugun produktuak eta tresnak, apaltasunez eta gauzak zalantzan jartzen jarraitzeko lehen pauso gisa. (*ikus "Bidezko merkataritza: genero-ikuspegia barneratzeko orientabideak" agiria*).





3. Bikotekako lana

Onera litzateke 4 bikote/talde egitea, lan-fitxen 4 arloen ganean lan egiteko (*ikus "Bidezko merkataritza: genero-ikuspegia barneratzeko orientabideak" agiria*). Hala ez balitz, lehen-tasuna ezarri sektoreen artean: edukiak, prestakuntza, antolakunde-kultura, eta beste antolakunde batzuekin lan egitea.

Dinamizatzaileek parte-hartzaileei begiak ixteko proposatuko die, eta beren antolakundean egiten duten lanaren egun bat irudikatzeko: Zer egiten dugu? Nola egiten dugu? Nolakoak diren bidezko merkataritzako lantegiak, bilerak, kanpainak, kideekin zein beste antolakunde batzuekin ditugun harremanak, eta abar? Zer ari gara kontatzen bidezko merkataritzari buruz?

Dinamizatzaileak bikote/talde bakoitzari fitxen "aurrealdea" emango die, honako jarraibide hauek bete ditzaten:

- Galderei norberaren antolakundearen ikuspuntutik erantzuten saiatzea (bidezko merkataritzaren arloan egiten dugun geure lanari buruz gogoeta egitea), beste pertsonarekin elkarrizketan.
- Azkenean, galdera hauei erantzutea: Irakurtzen dudan honetatik, zer ikusten dut faltan nire antolakundean? Irakurtzen dudan honetatik, zer da oso ongi egiten duguna eta nabarmendu nahi duguna? 1-2 ideia galdera bakoitzeko.
- Ideia bakoitza postit batean idaztea.

Dinamizatzaileak papelografo banatan jasoko ditu ("zer ikusten dudan faltan" eta "zer egiten dudan ongi") bikote/talde bakoitzaren ideia nagusiak, guztiek ikusi ahal izateko. Bikoteei/taldeeii partekatzeko eta beren ideiak edo esperientziak azaltzeko eskatuko die.



* Dinamizatzaileak fitxa bakoitzaren "atzealdea" edukiko du, kontzeptuak argitu edo erantzunak kuestionatu beharko balira ere, edo informazio osagarriren bat eman fitxaren "aurrealdeko" galderen inguruan.



4.

Talde osoko bilkura

Papelografoetako informazioa ikusita, dinamizatzailerak osoko taldeari proposatuko dio batera osa ditzatela proposamenak/ekintzak/konpromisoak ildo horretan hobetzeko eta aurrerapenak egiteko, falta zaizkigunak nahiz esperientzia arrakastatsuak kontuan hartuta.

Dinamizatzailerak ideiak papelografo batean jasoz joango da.

Osoko talde hau bukatu eta ixteko, dinamizatzailerak dekalogoko 10 printzipioak partekatuko ditu (*ikus "Bidezko merkataritza: genero-ikuspegia barneratzeko orientabideak" agiri*); bidezko merkataritzan genero-ikuspegia eta ikuspegi feminista benetan barneratzeko printzipiook prozesuan zehar osatu dira, hain zuzen.





5.

Bukaera eta agurra

Dinamizatzailleak parte-hartzaileei eskatuko die lantegiaren hasierako txarteletako irudiak berriz hartzeko. Arnasa hartzeko gonbidapena egingo die, eta galdera hau botako du: Nola noa hemendik? Zer daramat neurekin? Erantzuna txarteletako irudien bidez emango da.

Hasieran aukeratutako bera gorde dezakete, edo beste bat aukeratu.

Bakoitzak, nahi baldin badu, aukeratutako irudiarekin adierazi nahi izan duena partekatuko du.

Dinamizatzailleak eskerrak emango dizkie, eta saioa bukatutzat emango du.



Setem

www.setem.org/euskadi

F | T @SetemHegoHaizea
